# Doctrina Christianaren declaracioa.

P. 1 Christava zara? R. Bay Iauna Iaungoicoaren graciarequin.
P. Cergatic erraten da Iaungoicoaren graciarequin? R. Cergatic
ezpainaiz cristava nere merecimentuz baicic christoren me-
recimentuz Iauna. P. Cerda cristava izatea? R. Christo-
ren discipulva izatea Iauna. P. Norda cristoren discipuloa?
R. Jesucristoren fedea Bautismo santuan profesaturic dagona,
eta arren servizacera obligaturic dagona Iauna. 5 P. Cerda
cristabaren señalea? R. Guruce santua Iauna. P. 6 Cergatic.
R. Cergatic baita Cristo crucificatuaren figura ceñetan re-
dimitu baiguinuzan Iauna. P. 7 Cenbat aldetara usatu
bear du Cristabac gurucearen señalea? R. Bi aldeta-
ra Iauna. P. 8 Cein dire? R. Ceñacea et Santiguacea
Iauna. P. 9 Cerda ceñacea? R. Escuñeco escuco beaz andiaz
iru gurece osqui egitea Iauna. P. Non? R. Lembicicoa
copetan, bigarrena agoan, irugarrena bularretan minza-
cengaralaric gure Iaun eta Iaungoicoarequin Iauna.
P. 11 Certaco eguitenda gurucea copetan? R. Iaungoicoac
guarda gaizan pensamentu gaizto gucietatic Iauna.
P. 12 Certaco agoan? R. Iaungoicoac guarda gaizan hiz errate
gaisto gucietatic Iauna. P. 13 Cergatic bularretan?
R. Iaungoicoac guarda gaizan obra, eta deseo gaisto gucie-
tatic Iauna. P. 14 Cerda Santiguacea? R. Escuñeco escuco

bi beaces gurucebat eroqui eguitea Jauna. P. Nondic nora?
R. Asi copetatic bularretaraño, ezquerreco sonetic escuinecoraño, nombracen deguilaric trinitate Jaun poderosoa Jauna.
P. 16 Noiz usatu bear du Cristabac gurucearen Señaleori? R. Asten garanean obra onenbat eguitean, eta arquicengaralaric necesidadean, tentacioan, edo peligruan, especialmente guacera ecitean, guacetic gequicean, echetic atracean, echera sarecean, elicen sarecean, andic atracean, jatean, edatean eta beste edocein obraren eguitean Jauna.
P. 17 Cergatic orrembeste aldiz? R. Cergatic beti, eta lecu gucietan baitabilza gure enemigoac gu tentacen eta perseguicen Jauna. P. 18 Cer enemigo dire oyec?
R. Mundua, Demonioa et araguia Jauna. P. 19 Badu gu ruceac virtuteric enemigo oyen contra? R. Bay Jauna.
P. Cergatic du virtute ori? R. Cergatic Cristoc venci tu baicituen gurucean bere erioza cela medio Jauna.
P. 21 Gurucea adoracendelaric cer erratenda? R. Adoracen zaitut, et bedeicacenzaitut Christo cergatic cere guruce Sandue cela medio redimitu baicinuen mundue Jauna. Division P. Christaba ezagumentura allegatu esquerostic cembat gauza dago obligaturic jaquira? R. Lau Jauna. P. 2 Cein dira? R. Lembicicoa jaquitea cer bear degun sinestatu; bigarrena jaquitea

cer bearduen escatu, irugarrena jaquitea cer bearduen obratu; laugarrena jaquitea cer bearduen errecibitu Jauna.

P. 3 Nola jaquinen degu cer beardegun sinestatu? R. Daquizquiguralic credoa, edo articulufeecoac Jauna. P. 4 Nola jaquiñen degu cer beardegun escatu? R. Daquizquigularic aitaguregu, ave Maria, eta berceganeraco Elico oracioac Jauna.

P. 5 Nola jaquiñendugu cer beardugun obratu? R. Daquizquigularic Jaungoicoaren leguesco amar mandamentu santuac, Eliceco bortac eta obra misericordiacoac Jauna. 6 P. Nola jaquiñendugu cer beardugun errecibitu? R. Daquizquigularic Eliceco zazpi Sacramentu santuac Jauna.

---

Dotrina Christianaren lendavicico partea cenetan declaratcenbaitire Credoa, eta articula fedescoac.

---

P. 1 Norc erran zuen credoa? R. amabi Apostoluec Jauna.

P. 2 Certaco? R. Guri fedea eracusteco Jauna. P. 3 Eta guc certaco erraten degu? R. degun fedea confesaceco Jauna. P. 4 Cer da fedea? R. Icusigabeco gauza sinestacea Jauna.

P. 5 Icusiciñuen christo jayo cen? R. Ez Jauna. P. 6 icusiciñuen ilcen edo ceruetara igocen? R. Ez Jauna. 7 P. Sinestacenduzu? R. Bay Jauna. P. 8 Cergatic? R. Cergatic Jaungoicoac ala errebelatu baicion Eliza ama santuari eta

Elizaama Santuac arla eracusten baitigu guri Jauna.

P. 9. Cer gauza dira cristabac tuenac eta siñestacentuenac.

R. Elizaama Santuac tuenac eta siñestacentuenac Jauna. 10. P. Cer gauza dire zuc eta Elizaama Santuac tucienac et siñestacentucienac. R. Articulo fedecoac credoan dauden bezala Jauna. 12. P. Certaco dire articulo fedecoac. R. Emateco noticia distintoa eta claroa Jaungoico gure Jaunarena, eta Jesucristo gure redentoriarena Jauna. P. 13. Nor da Jaungoicoa?

R. Da gauzabat hain escelentia, hain admirable, Jaunbat infinitamente ona, poderosoa, Sabia, justoa, principioa eta fina gauza guciena, veracezdufenac ez finic ezaz principioric Jauna. P. 14. Nor da trinitate Jaun poderosoa? R. Da Jaungoicoa beza Aita, eta Semea eta espiritu Santue, iru persona distintoac eta Jaungoico verdaderobat Jauna.

P. Cembat Jaungoico dire? R. Bat Jauna. P. Cembat persona? R. iru Jauna. P. Cein dire? R. Aita, et Semea eta espiritu Santue Jauna iru persona distintoac eta Jaungoico verdaderobat Jauna. P. 15. Aita Jaungoicoa da?

R. Bay Jauna. P. 16. Semea Jaungoicoa da? R. bay Jauna.

P. 17. Espiritu Santua Jaungoicoa da? R. bay Jauna. 18. P. Iru Jaungoico dire? R. Ez Jauna: baicic iru persona distintoac, eta Jaungoico verdadero bat Jauna. P. Nola daiquebada ori Aita Jaungoicoa, Semea Jaungoicoa, espiritu Santue Jaungoicoa, eta alaere Jaungoicobat baicic ezdala? R. ala nola Sagarbatec baititu iru gauza

diferentiac urrina, colorea et gustoa alaere sagarbat bai-
cic ez: gusa berean arquicen dire Aita, Semea eta espiri-
Santu Jauna iru persona distintoac et Jaungoico verdadero
bat Jauna. G.[19] Aita Semea da? R. ez Jauna. G.[20] espiritu
Santue Aita edo Semea da. R. ez Jauna. G.[21] Cergatic?
R. Cergatic baitire iru persona distintoac eta Jaungoico ver-
dadero bat Jauna.) G. Nor da Aita. R. Da trinitateco lendavi-
cico persona divinoa cenec egendratu baizuen Seme bat
igual izatez eta distintoa personetan Jauna. G. Nor da
Semea? R. Da trinitateco bigarren persona divinoa ~~egen~~
engendratue aita eternoagandic Jauna. G. Nor da espi-
ritu Santue? R. Da trinitateco irugarren persona di-
vinoa procedicen duena Aita eta Semearen arteco amo-
riotic, eta borondatetic Jauna.) G. Cembat naturaleza
ditu Jaungoicoac? R. bat Jauna. G. Cembat boron-
date? R. bat Jauna. G. Cembat entendimentu? R. bat
Jauna. G.[22] (4) Cergatic da Jaungoicoa gucir poderosoa? R.
Cergatic berac nai hizatearequin egiten baitu nai
duen gucia Jauna. G.[24] Cergatic da Salvazalea? R. Cerga-
tic ematen baitu gracia et barcacen pecatuac Jauna.
G.[25] Cergatic da glorificazalea R. Cergatic ematen baitu
gloria arren gracian perseveracendutenari Jauna.

P. 23. Eta cergatic da creazalea? R. Cergatic ezdeusetic criatu baicituen gauza guciac Jauna. P. Eta gu certaco criatuguinucen? R. Ezaguceco, eta Serviceco arren divina magestadea mundu onetan, eta guero gozaceco ceruco glorian Jauna.
P. 26. Jaungoicoac badu gorpuzaren figuraric guc bezala?
R. Eztu Jauna Jaungoicoaren partetic cergatic baita espiritu purua, baiñen badu guizonaden partetic Jauna.
P. 27. Trinitateco iru personetatic ceiñ eguincen guizon? R. Bigarren persona divinoa ceiñ baita Semea Jauna.
P. 28. Aita eguincen guizon. R. Ez Jauna. P. 29. Espiritu Santua eguincen guizon? R. Ez Jauna. P. 30. Nor eguincen bada?
R. Solamente Semea, ceñi guizon eguinezgueroztic deicen baizayo Jesuchristo. P. Cergatic ezizen eguin guizon Aita, eta espiritu Santuc baicic solamente Semea? R. Cergatic sabiduriac galdubaizuen munduc sabiduria ematenzayo Semeari, ala nola podorea Aitari, eta amorioa espiritu Santuari Jauna.) P. Non eguincen guizon? R. Ama Virginaren entrañetan Jauna. P. Norem obraz? R. espiritu Santuaren obraz, eta virtutez Jauna. P. Espiritu Santuac bacarriz eguinzuen obraau? R. Ez Jauna baicic trinitateco iru personac Jauna. P. ~~Aita~~ Cergatic, erranderzu bada hizanducela espiritu Santuaren obraz?

R. Cergatic hizandubaicen amorioaren obra, eta amorioa ematen daquio espiritu santuari: ala nola podorea Aitari, eta Sabiduria Semeari Jauna. P. Cer guisa hizanduzan obra hura? R. Espiritu santu Jaunac artuzuen amaizigiñaren entrañetatic odol chortabat; odol arrequin formatuzuen gorputzbat, ezdeusetic; criatutzuen anima bat, anima eta gorputza alcarri unituric artucituen trinitateco bigarren persona divinoac beregana orrequin egueldituzen, Jaungoico cena, guero Jaungoico eta guizon eguinic Jauna. P. Cembat naturaleza ditu Jesucristoc? R. Bi Jauna; bata divinoa eta bestea humanoa Jauna. P. Cembat borondate? R. bi Jauna: bata divinoa eta bestea humanoa Jauna. P. Cembat entendimentu? R. bi Jauna: bat divinoa eta bestea humanoa Jauna. P. Cembat persona? R. personabat cein baita trinitateco bigarren persona ~~divina~~ Jauna.
P. Divinoa, edo humanoa? R. divinoa Jauna. P. Jesucristoc cembat memorie ditu. R. Memoria bat guizonden partetic Jauna. P. Jaungoicoden partetic badu memorieric? R. ez Jauna. P. Cergatic? R. Cergatic gauza gucieec baitauzqui presente Jauna. P. norda Jesucristo?

R. da Jaungoicoren Semea guizon eguinzana gure redimiceagatic Jauna. P. Cer ervanaidu Jesucristoc? R. Jaungoicoa, eta guizon Jauna. P. 32. Cer erran naidu Jesusec? R. Salbazalea Jauna.
P. 33. Certatic salbatu guinduen? R. Gueren pecatuetatic, eta demonioaren cautiverioetic Jauna. P. Nor ilce? R. Jesucristo Jauna. P. Non ilcen? R. Guruccean Jauna. P. Cergatic? R. Gu eta mundugucicoon salbaceagatic Jauna.
P. Cerda ilcea? R. Anima gorpucetic apartacea Jauna.
P. Cerda resucitacea? R. Anima gorpucera izulcea Jauna.
P. Jesucristo ilcelaric anima nora juancen? R. Jechicen limbora unituric divinidadearequin Jauna. (P. nola entendicenda ori? R. ala nola guizon batec arcembaitu cambetabat escubatean eta naguia bertean; cambetac sinificacendu anima, naguiac gorpuza, eta ezdicoac divinidadea Jauna. P.) Gorpuza non gueldituceu? R. Sulltituceu guruccean unituric divinidade santuarequin Jauna.
P. 42. Jesucristo nola resucitatuceu ill eta irugarren egunean?
R. Izulicioen unicera anima, eta gorpuza berriz ez illceco scaula Jauna. P. 43. nola igoncen cerura? R. bere virtute propioarequin Jauna. P. nola dago ceruan? R. andagoca jarridic Aita eternoaren escuñeco aldean eta arren

igualdadean Jauna. P. Aita eternoac badu escuñeco aldedic?

R. Ez Jauna. P. 44. Cergatic erraten da bada dagola jarriric Aita eternoaren escuñeco aldean edo arren igualdadean? R. Cergatic Cristoc baitu Jaungoicoaren partetic, Aita eternoarequin igual gloria, eta guizonaren partetic ceruco ainguerue eta criatura guziec baino guehago Jauna. P. 45. Noiz etorricoda juzgacera illac eta viciac? R. Azquen juicioco egunean Jauna. P. 46. Eta orduen gucioc beardugu resucitatu? R. Bai Jauna borzy tugun gorputz eta animaquin Jauna. 2.° P. 48. 49. Cer da Eliza ama santa catolicoa? R. Da cristau fiel gucien junta eta congregacioa ceinen burua baita Aita santu erromocoa lurrean, nori baicaude gucioc obligaturic obedicera Jauna. 1.° P. 47. Cer naidu erran Santuen communioac?

R. Christau fiel gucieq dutela parte bercecen obra hon gucietan gorputz baten membroac bezala, cein baita Eliza, Jaungoicoren gracian Jauna. P. Cer erran naidu becatuaren barcacioac? R. Elizan badirela sacramentuac becatuen barcaceco Jauna. P. Araguiaren resurrecioac cer erran naidu? R. Azquen juicioco egunean resucitatu beardegula orai tugun gorputz eta animarequin Jauna.

P. Cer erran naida vicice seculecoac? R. Vicibeardugula secula seculorum cerunan edo infernuan Jauna. P. Hasoparen azquen finac cembat dire? R. Lau Jauna.

P. Cein dira? R. ilcea, juicioa, ceruа, et infernua Jauna.
P. Cerda ilcea? R. Anima gorpucetic apartacea Jauna.
P. Cerda juicioa? R. ill eta bereala Jaungoicoari contu ematea mundu onetaco bicimodaguciез Jauna. P. Nor joatenda ceruга? R. Jaungoicoaren gracien illcendirenac eta pecatuec ongui purgaturic dauzquienac Jauna. P. Nor joatenda infernura? R. Pecatu mortalean illcendirenac Jauna. P. Purgatoriora nor joatenda? R. Jaungoicoren gracien illcendirenac, baña pecatuac ongui purgaturgabe dauzquienac Jauna. P. Limbora nor joatenda? R. Aur batayetu gabe ilcendiraren animac Jauna. P. eta Abran patriarcaren Senoda nor joatenda? R. Oray iñor ez Jauna. P. Lenago nor joatenceren R. Justoen animac, eta pecatuac ongui purgaturic ceuzquitenan Jauna.

Doctrina Christianaren bigarren partea cenetan declaracen baita aita gurea, eta beste Elizeco oraciac.

P. Norc erranzuen aita gurea? R. Jesu cristoc Jauna. P. Certaco?
R. Gure otoiz eguiten eracusteco Jauna. P. Ceda otoiz eguitea?
R. Jaungoicoari biotza goracea, eta mercheseac escacea Jauna.
P. Aita gurea erratenduguelaric norequin minzacengara?
R. Gure Jaun eta Jaungoicoarequin Jauna. P. Non dago Jaungoicoa? R. Secuguecietan, particularqui ceruan eta aldareco Sacramentu Santuan Jauna. P. Jaungoicoa badago Ceruan eta lurrean? R. Bay Jauna. P. erreceenda edo bustcenda? R. Ez Jauna. P. Cergatic R. Cergatic baita espiritu purua Jauna. P. Ceda espiritu purua? R. Gorputzic gabea Jauna. P. Non dago Jesucristo? R. Ceruan eta aldareco Sacramentu Santuan Jauna. P. Cein da oracioetan obrena?
R. Aita gurea Jauna. P. Cergatic. R. Cergatic erranbaizuen Jesucristo gure Jaunec bere ago Santues apostoluac escanc Jauna. P. Cergatic gueyago? R. Cergatic baitu zazpi peticio caridadean fundatuac Jauna. P. Cein dire?
R. Lendabicicoa Santificabedi zure icena Jauna. P. Cer escacenderu peticio orretan? R. Jaungoicoaren icen Santua oandedilla ezagutua eta alabatua mundu gucian Jauna.
P. Ceinda bigarrena? R. etorbedi zure erreinua guregana Jauna. P. Cer escacendutzu peticio orretan? R. Jaungoico gure Jaunac reinadezala gure animetan munduonetan

gracias, eta bestean glorian Jauna. P. Ceinda irugarrena? R. eguin bedi zure borondate santua ceruan bezala lurrean Jauna. P. Cer escacendutu peticio orretan? R. Eguin zagula Jaungoicoaren borondatea Santue lurrean gaudenac, ala nola eguiten baitute bienabenturatuac ceruen daudenac Jauna. P. Ceinda laugarrena. R. emandezagula eguin eroco oguia eguin eta beti Jauna. P. Cer escacendezu peticio orretan? R. Jaungoico gure Jaunac emandizagula mantenimentu corporala, eta Sacramentuac animarendaco Jauna. P. Ceinda bortgarrena? R. Barca dizquigula guri gueren zorrac, guc barcacen ditugun bezala, gu zorgai tuztenai Jauna. P. Cer escacendiozu peticio orretan? R. Jaungoico gure Jaunac barcadizquigula guri gueren pecatuac guc barcacendiotegun bezala agrabiatu, eta gaizqui eguin diguitenari Jauna. P. Ceinda Seigarrena? R. Ez ezgaizala uci tentacioan erorcera Jauna. P. Cer escacenduzu peticio orretan? R. Jaungoico gure Jaunac ezgaizala uci erorcera, eta consenticera pensamentu eta tentacio gaistoetan, cegatic demonioac procuracen baitu gu pecatuan herorartea Jauna. P. Ceinda zazpigarrena? R libragaizatu gaizgucie tatic Jauna. P. Cer escacenditu peticio orretan? R. Jaungoico gure Jaunac libragaizala gaizgucietatic ala animacotatic, nola gorpuzacotatic Jauna.

P. Cer oracio erraten zayo principalmente amavirginari?
R. Ave maria, edo salvea Jauna. P. Norc erranzuen avemaria?
R. Aingueru Sn ~~Grabielec~~ Gabrielec etorricelaric amavirginaren visitacera Jauna. P. Norc erranzuen salbea? R. Elizama Santuac Jaunca bertaco errecibituric Jauna. P. Certaco? R. Amavirginari favoreac escaceco Jauna. P. Avemaria edo Salbea erratendugulaic norequin minzacengara? R. Ama virginarequin Jauna. P. Nor da amavirgina? R. Da andrebat virtutes betea cein baita Jaungoicoaren ama ceruan dagona Jauna. P. Aldarean dagona norda? R. Da arren idurira edo Semejanzabat Jauna. P. Certaco dago han? R. hura icusita, oroitu gaitecen ceruan dagoanaz ~~Jauna~~ eta eguindizaguen reverenciaJauna. P. Eguin beardugu otoiz aingueruei et. beste gañeraco Santuei? R. Bai Jauna; gure medianeroac diren bezala Jauna? P. Cer gauzadire ainguerua? R. dira espiritu bienaventuratuac daudenac Jaungoicoarequin gozacen ceruco glorian Jauna. P. Certaco criatucituen Jaungoicoac? R. Alabaceco eta bedeicaceco Jaungoico Jauna. P. Certaco gueyago? R. arren ministroac diren bezala elizaren gobernaceco, eta guizonen guardaceco Jauna. P. eta zuc badezu ainguerua guardicoa? R. Bay Jauna persona bacoitzac badu berea Jauna.

Doctrina cristianaren irugarren partea cenetan declaracen baitá cer beardegun obratu.

P. Ceinda Jaungoicoaren leguesco lendabico mandamentua?
R. Maitacea Jaungoicoa gauza guciac baño gueyago Jauna.
P. Norc maitacendu Jaungoicoa? R. Aren mandamentu santuac guardacentuenac Jauna. P. Cerda maitacea Jaungoicoa gauza guciac baño gueago? R. Nayago izatea galdu munduco gauza guciac, Jaungoicoa ofenditu baño Jauna. P. Certara gueyago obligacengaitu mandamentu onec? R. Jaungoicoa bacarric adoracera animaco eta gorputzaco reberencia andiarequin, sinestacen eta esperacendugularic fede osoarequin Jauna. P. Norc eguitendu pecatu mandamentu onen contra? R. Idoloac edo Jaungoico falsoac adoracentuenac, edo ayetan sinestacen duenac Jauna. P. eta norc gueyago? R. Agüerotan, eta gauza supersticiosoetan sinestacen duenac Jauna. P. Ceinda bigarrena? R. Juramenturic banoan eguin ezderagula Jauna. P. Norc eguitendu juramentua banoan? R. Juramentu eguitenduenac eguia gabe; justicia gabe; eta necesidadea gabe Jauna. P. Pecatu da juramentu eguitea banoan christorengatic? R. bai Jauna, cergatic, hayetan eguiten baizayo juramentu criaturaleari Jauna.

P. Cer erremedio da ez juramentaceco banoan? R. Acostumbra-
cea ez, edo bai erratera Jaungoicoac manacenduen bezala Jauna.
P. Cein da irugarrena? R. Jai egunac santificacea Jauna. P.
Norc santificacentu Jai egunac? R. Meza osoa enzuten
duenac, eta trabajacen eztuenac necesidaderic gabe Jauna.
P. Ceinda laugarrena? R. Gueren Aita, eta ama, eta zarrago-
coac ongui ondratu, eta errespetatu dizagula Jauna. P. Norc
ondracenditu aita eta ama? R. Obedicen, Socorricen, eta
reberenciacen tuenac Jauna. P. Aita eta amaz landara cein
dire hurbillenac? R. Zarragoac adinean, andiagoac digni-
dadean eta gobernuan Jauna. P. Ceinda borzgarrena? R. Inor
ill ezdezagula Jauna. P. Cer mandacendu mandamentu
onec? R. Ez eguitea gaitzquiric inori ez itzez, ez obraz,
eta ez deseos Jauna. P. Cein da seigarrena? R. Lujuriaz-
co pecaturic eguin ezdezagula Jauna. P. Cer manacendu
mandamentu ortan? R. Izangaitecela garbiac, eta
castoac pensamentuz, hitces eta obraz Jauna. P. Ceinda
zazpigarrena? R. Inori deus ebasi ezdizogula Jauna.
P. Cer manacendu mandamentu orretan? R. Ez quencea,
ez iduquicea, eta ez nai izatea besteren gauzaric
jabearen borontatearen contra Jauna. P. Ceinda zor-
cigarrena? R. Inori falso testimonio gaitzoric ezaqui ezdi-
zogula, et ez guezurric erran Jauna. P. Cer manacendu

mandamentu orretan? R. Ez eguitea progimo laguneréndaco juicio gaistoric, ez erratea, eta ez adicea aren faltaric Jauna.

P. Norc faltacenda mandamentu onen contra? R. Arrazobearen contra gaiqui juzgacenduenac, fama guencenduenac, secretoa arguencenduenac, eta guezurra errantenduenac Jauna.

P. Cer manacendute bederacigarren, eta amargarren mandamentuac? R. Progimo lagunaren biciquidea guerendaco deseatu ezdezagula, eta lagunaren hacienda bidegabean gaizqui tratatu ezdezagula Jauna.

Doctrina Christianaren laugarren partea cenetan declaracen baitere Sacramentu recibitu bear direnac.

Cer gauza dire Sacramentuac? R. dire señale claro bazuec eguin cituenac Jesuchristo gure Jaunac emateco obeguin guri bere gracia, eta virtuteac Jauna. P. Cer gauza da gracia? R. Da hizate divino bat cenen medios eguiten baicara Jaungoicoaren hume, eta cerüco heredero Jauna. P. Cer virtute ematen dituste Sacramentuac graciarequin batean? R. principalgui iru virtute teologalac: fedea, esperanza eta caridadea Jauna. P. Cer virtute da fedea? R. Da virtute sobrenatural bat cenen medios sinestacen baitugu Jaungoicoac Eliza ama santuari rebelatu cition misterio gueciac: eta Eliza ama santuac guri eracusten tiguenac Jauna. P. Cer virtute da esperanza? R. Da virtute sobrenatural bat cenen medios esperacen baitugu cerüco gloria Jaungoicoaren gracias, eta gueren obra onen medios Jauna. P. Cer da caridadea? R. Da virtute sobrenatural bat cenen medios maitacen baitugu Jaungoicoa gauza gueciec baño gueyago, eta progimo laguna gueren buruac bezala Jauna. P. Certaco da bautismo santua? R. Guenceco pecatu originalaren mancha, eta beste hedocein arquicendirenac batayecendenaren baytan Jauna. P. Cer da pecatu originala? R. Da pecatu hura cenequin jayocen baicara heredaturic, gueren lendabicico, adan eta ebarengandic Jauna. P. Certaco da confirmacioco Sacramentu Santua? R. Confirmaceco, eta ~~[illegible]~~ aseguraceco

bautismo santuen errecibitu guinuen fedea Jauna. P. Certaco da
confesioa edo penitencia R. Batayotu esquerostic eguindeco pecatuen
barcaceco Jauna. P. Ceda pecatua? R. Da eguitea, erratea, pensa-
cea, edo deseacea ceimbat gauza Jaungoicoaren legue santuaren con-
tra Jauna. P. Cembat aldetara da pecatua? R. Bi aldetara Jauna.
P. Ceïn dire? R. pecatu mortala, eta pecatu veniala Jauna. P.
Ceda pecatu mortala? R. Da eguitea, erratea, pensacea, edo
deseacea gauza ~~gaitz~~ gravecembat Jaungoicoaren legue santuaren contra
Jauna. P. Cergatic deicenda mortala? R. Cergatic ilcembaitu egui-
tenduenaren anima Jauna. P. Cembat medios barcacenda pecatu
mortala? R. Iru medio Jauna. P. Ceïn dire? R. Confesio onarequin,
contricioarequin, eta obrarco satisfacioarequin Jauna. P. Ceda pe-
catu veniala? R. Da eguitea, erratea, ~~edo~~ pensacea, edo deseacea
gauza chiquicembat Jaungoicoaren legue santuaren contra Jauna.
P. Cergatic deicenda veniala? R. Cergatic facilqui erorcen baita
pecatu hortan, eta facilqui barcacen baita Jauna. P. Cembat
medios barcacenda pecatu veniala? R. Bederaci medios Jauna.
P. Ceïn dire? R. Lendabicicoa meza enzutearequin, bigarrena co-
mecacearequin, irugarrena confesio generala erratearequin,
laugarrena Obispo Jaunaren bendicioarequin, bosgarrena hur
bedicatua arcearequin, seigarrena ogui bedicatua arcearequin,
Zazpigarrena ~~Sermona adicearequin~~, eta guria erratea~~requin~~,
Zorcigarrena Sermona adicearequin, eta bederacigarrena pecho-
co golpearequin, escacendiogularic Jaungoicoari misericordia Jauna.
P. Certaco da comecadura Santua? R. Errecibicendugularic digno-
qui alimentaceco anima, eta aumentaceco gracia Jauna.

P. Cer errecibitzen da comecadura santuan? R. Jesucristo Jaungoico eta guizon verdaderoa Jauna. P. Certaco da Olioduraco Sacramentu Santua? R. Iru gauzataco Jauna. P. Cein dire? R. Lendabicicoa: lengoaco vici gaistoaren manchac, eta reliquiac quenceco: bigarrena: animari indarra emateco demonioaren tentacioaren contra, eta irugarrena: gorputzari osasuna emateco combeni bazayo Jauna. P. Certaco da ordena? R. Consagraceco, eta ordenaceco elizaco ministro dignoac, cein baitire Sacerdoteac, Diaconoac, eta Subdiaconoac Jauna. P. Certaco da sacramentu santu matrimonioa? R. Ezconceco eta ezconduei graciac emateco bici daitecen elcarrequin baquean, eta unioan Jauna: eta humedic hazaten badute hazidezaten Jaungoicoaren servizoraco Jauna.
P. Confesio hon baten eguiteco cembat gauza bear dire jaquin? R. Bortz Jauna. P. Cein dire? R. Lendabicicoa: examina, bigarrena: dolorea, irugarrena: propositua, laugarrena: confesioa, eta bortzgarrena: satisfacioa Jauna. P. Cer da examina? R. bere pecatuas oroitcea Jauna. P. Nondic oroitzeco da? R. Jaungoicoaren legueco amar mandamentu santuetatic, Elizaco bortzetatic, eta obra misericordiescotatic Jauna. P. Cembat dembora bear du examina eguiteco? R. Ez da Jauna dembora jaquinic, batzuec bear dute guehiago, eta berceac gutiago Jauna. P. Cer da dolorea? R. Arrea dolore, eta unicalmentu audibat guere ~~Jauna~~ Jaungoicoa ofenditues Jauna. P. Cembat alderara da? R. Bi aldetara Jauna. P. Cein dire? R. Contricioa eta atricioa Jauna. P. Cer da contricioa? R. Arrea dolore eta unicalmentu audibat guere Jaungoicoa ofenditues, ceragatic baita hain ona, eta

amablea Jauna. P. Cerda atricioa? R. Da arcea dolore eta unicalmen-
te audibat gure Jaungoicoa ofendituec, cergatic gueren pecatuec dirala
medio galdubaitugu cerua, eta merecibaitugu infernua Jauna.
P. Cein da hoyetan bietan oberena? R. Contricioa Jauna. P. Cerga-
tic? R. Cergatic contricioac berac barcacen baitu pecatuac
confesaceco intencioarequin; baren atricioac ez, confesio gabe,
eta sedescobat gabe Jauna. P. Cerda propositua? R. Arcea inten-
cio firmebat ez guehago pecaturic eguiteco Jauna. P. Cerda
confesioa? R. Esatea confesoreari bere pecatu gucic ciertoac
ciertoac bezala, dudosoac dudosoac bezala, guciac batere
alquez, eta beldurric ucigabe Jauna. P. Eta estembaldemba-
du pecatubat, edo beste, orroicendelaric, confesaceco cer
eguinendu? R. Pecatu mortalbat Jauna. P. Dudambaldim-
bad ganzabatez, pecatuden ala ezden, eta ez badu confesa-
cer eguinendu? R. beste pecatu mortalbat Jauna. P. eta
confesacenbaldimbada bere pecatuec doloreric gabe, edo
propositoric gabe, edo confesoriac ematendion penitencia
cumpliceco intencioric gabe, confesio ona eguinendu? R.
Ez Jauna eguinendu sacrilegiosco pecatu audibat Jauna.
P. eta guisonetan joaten bada comecacera? R. beste pecatu
mortalbat Jauna. P. eta orrec cer obligaciodu? R. Confesioa
berricea Jauna. P. Cerda confesioa berricea? R. lenago confe-
satu cituen eta ezcituen guciec berriz confesacea Jauna. P.
Cein dire confesacendirenac doloreric gabe, edo propositu-
ric gabe? R. apartacen ezdirenac pecatu eguiteco oca-

siotic, edo confesio baten, edo biden ondorean etorcendirenac peca-
tu berean Jauna. P. Cer da obraz̃co satisfacioa? R. Confesoreac
ematen dion penitencia cumplicea, edo cumpliceco intencioa era-
matea Jauna. P. Noiz cumplitu bear du penitencia? R. Señala-
cen badio dembora confesoreac: dembora artan berean; eta ez
badio siñalacen lenbailen Jauna. P. Eta cer eguiten du ez pa-
du cumplicen penitencia? R. Pecatu mortalbat Jauna: peniten-
cia gravea baldin bada. P. Comecacera joateco cembat dispo-
sione bear tu? R. Bi Jauna: bat gorputzaren partetic, eta bes-
tea animaren partetic Jauna. P. Gorputzaren partetic cer
disposicionetan juan bear du? R. Gau erditic gorti deus jan
gabe eta edan gabe Jauna. P. Animaren partetic cer dis-
posionetan juan bear du? R. Pecatuac ongui confesaturic
estadu graciascoan Jauna. P. Eta bi disposicione hoyes landara
bear du besteric? R. Bay Jauna: conocimentue cer errecibitcera
doayen, eta deseoa ~~Jauna~~ ongui errecibiceco Jauna. P. Comecacera
joatean cer erratenda? R. Jauna ni ez naiz digno horren
divina magestadea errecibiceco, alaricere erranbedi horren
hoz santue, nere anima hizanenda sanatua et salbatua Jauna.
P. Cembat aldiz erran bearda hori. R. Iru aldiz Jauna. (P. Eta
gueró cer eguin bearda? R. Agoa ongui bear du modestia eta
humildade andiarequin mingaña atracenduelaric azpico espa-
neren bediñeraño eta comecatu Jauna.) P. Comecatu ondoan cer
eguin bearda? R. Jaungoicoari graciac eman Jauna.

Cer dago hostian? R. Sacerdote Jaunac hiz consagraciesco eran baño len ogui piscabat oranzaric gabe Jauna; Sacerdote Jaunac hiz consagraciesco eran esqueroztic Jesucristoren corpuz preciosoa hain real, eta verdaderamente nola baitago Ceruan, eta aldareco sacramentu Santuan Jauna. P. Gorpuces landara badago bertzeric? R. bay Jauna, odola, anima, eta divinidadea Jauna. P. Cergatic daude odola, eta anima? R. Cergatic ezpaitagoque gorpuz vicia, odolic eta animaric gabe Jauna. P. Cergatic dago divinidadea? R. Cergatic baita Jaungoicoa Jauna. P. Cer dago calizan? R. Sacerdote Jaunac hiz consagraciescoac eran baño len ardo chortabat hur tanta batequin Jauna, Sacerdote Jaunac hiz consagraciescoac eran esqueroztic Jesucristoren odol preciosoa hain realqui, eta verdaderoqui nola baitago Ceruan ~~Jauna~~ eta aldareco sacramentu Santuan Jauna. P. Odolaz landara badago bertzeric? R. Bay Jauna, gorpuza, anima eta divinidadea Jauna. P. Cergatic daude gorpuza eta anima? R. Cergatic ezpaitagoco odol vicia gorpucic, eta animaric gabe Jauna. P. Cergatic dago divinidadea? R. Cergatic baita Jaungoicoa Jauna. P. Particendelaric hostia consagratua, particenda Jesucristoren gorpuzce? R. Ez Jauna. P. Cer particenda bada? R. Oguiaren accidentiac Jauna. P. Cer dira? R. hurrina, colorea, eta gustoa Jauna. P. Eguitendelaric hostia consagratua iru edo lau puxca, cenetan dago gueyago? R. guecietan igoal Jauna. P. Cergatic? R. Cergatic Jesucristo baitago hostie guecietan, eta otiaren edocin partetan igual Jauna.

Jaungoicoaren leguezo mandamentu santuac dirade amar: Lendavicico irurec Jaungoicoaren hondracoac; beste Zazpiec progimo laguren probechucoac: Lendavicoa Jaungoicoari honesi, eta adoradezagula gauza gucice bano guegago: bigarrena juramenturic banoen eguin ezdezagula: irugarrena Jayac eta igandeac ongui guardadizagula: laugarrena gueren guraioac, eta gueroc bano Zarraguac ongui ondratu eta errespetatu dizagula: bosgarrena inor ill ezdezagula, eta ez descatu: Seigarrena lujuriaco pecaturic eguin ezdezagula: Zazpigarrena inori deus ebasi ezdizogula: eta ezdescatu: Zorcigarrena inori falsotestimonioric goratu ezdizogula eta ez guezurric erran. bederacigarrena progimo lagunaren biciquedea guerendaco descatu ezdezagula amargarrena progimo lagunaren hacienda ordegabean gaizqui tentatu ezdezagula: ebec amar mandamentu santuac encerracendire bi izcetara, lendavicicoa Jaungoicoa onesi eta adoradezagula gauza guciac bano guegago: bigarrena gueren progimo lagunac gueren buruac bezala.

Elizaco mandamentu santuac dirade bost. Lendavicicoa jayetan eta igandetan mezabat ongui enzutea: bigarrena urtean bein bedere confesacea, edo lenago eriozaco peligroric baldinbadegu, edo comecatu bear baldenbadegu: irugarrena pazcoa garicimacotan confesa comecacea: laugarrena Eliza ama santuac manacenduelaric barucea: bosgarrena amarren primiciac justoqui, eta lealqui eguitea Jauna.

Articulo fedecoac dirade amalau: lendabicico zazpiac divinidade santuarenac, beste zazpiac humanedade santuarenac: divinidade santuenetatic lendabicicoa sinestacea dela Jaungoicoa gucis poderosoa, bigarrena sinestacea dela aita, irugarrena sinestacea dela semea, laugarrena sinestacea dela espiritu santua, bostgarrena sinestacea dela criazalea, seigarrena sinestacea dela salbazalea, zazpigarrena sinestacea dela glorificazalea, eta guciei glori emanzalea:
humanidade santuarenac dire: lendabicicoa sinestacea Jesucristo gure Jauna guizonen bezala hizanducela concebitua ama virginaren entrenetan Espiritu santuaren obraz eta virtutez; bigarrena sinestacea jayocela virgina mariarengandic guelditzencelaric virgen cedibanen len, erdicean, eta erdiez queros beti virgen: irugarrena sinestacea paraturzuela eriotza, eta pasioa dolorosoa gu eta mundu guzia salbaceagatic: laugarrena sinestacea gechicela limbora ancizen anima tristeac consolacera, eta libracera: bosgarrena sinestacea resucitatucela illen artetic: seigarrena sinestacea igoncela ceruetara: zazpigarrena sinestacea handic etorricodela onen, eta gaistoen juzgacera; onei emanendiotela ceruco gloria ceren guardatucituten aren legueco mandamentu santuac: gaistoai infernuco penac ceren guardatu ezcituzten.

Obra misericordiascoac dire amalau: lendabicisco zazpiac espirituala; beste zazpiac corporalac: espiritualetatic lendabicicoa daquienac eztaquienari eracustea: bigarrena consejua bearduenari consejua ematea: irugarrena castigua bearduenari castigua ematea: laugarrena injuriac barcacea: bosgarrena tristeac consolacea: seigarrena progimo lagunac eguitendituzten agrabioac, eta flaquezac paciencian eramatea: zazpigarrena billetz, eta bicies Jaungoicoari otoiz egoitea: corporalac dire hoec: lendabicicoa eriac bisitacea: bigarrena goseac dagoanari jatera ematea: irugarrena egarriac dagoanari edatera ematea: laugarrena cautiboac rescatacea: bosgarrena bulusiac besticea: seigarrena probre eta peregrinoari ostatua ematea: zazpigarrena illac ocicea.

Pecatu capitalac dire zazpi: lendabicicoa soberbia: bigarrena avaricia: irugarrena lujuria: laugarrena ira: bosgarrena gula: seigarrena embidia: zazpigarrena pereza: zazpiricio eben contra dire, beste zazpi virtute: soberbiaren contra humildadea: avariciaren contra larguetta: lujuriaren contra castidadea: iraren contra paciencia: gularen contra templanza: embidiaren contra caridadea: perezaren contra diligencia. Animaren esayac dire iru: mundua: demonioa: eta araguia. P. Cein da enemigo oyetan audiena? R. Araguia Jauna. P. Cergatic? R. Cergatic besteac apartatu baiceguique guecengandic, bane araguia ez Jauna.

P. Nola vencitucodegu araguia? R. Baruruas eta mortificatuaz Jauna.
P. Nola demonioa? R. Oracioarequin, eta mortificacioarequin Jauna.
P. Nola mundua? R. Menospreciccenditugularic munduco pompac, eta vanidadeac Jauna. Virtute teologalac dire iru: fedea, esperanza, eta caridadea Jauna. P. Cerda fedea? R. Icusigabeco gauza sinestacea Jauna. P. Cerda esperanza? R. Esperacea ceruco gloria Jaungoicoaren gracias, eta gueren obra onen medios Jauna. P. Cerda caridadea? R. Maitacea Jaungoicoa gauza gucien baño gueyago, eta gueren progimo laguna gueren buruac bezala Jauna.
Virtute cardinalac dire lau: prudencia, justicia, fortaleza, eta templanza. Sentido corporalac dire bost: Cendabicicoa begarias icustea, bigarrena bearrias adicea, irugarrena suguruas usmacea, laugarrena agos gustacea, bosgarrena escuas uquitcea. P. Certaco emancituguen Jaungoicoac sentidoac eta beste gorputzeco miembroac? R. Servicceco Jaungoicoa gucietaz Jauna.
Animaren potenciac dire iru: memoria, entendimentua, eta borondatea. P. Certaco emanciguen Jaungoicoac meria? R. Oroitceco artaz eta aren beneficioas Jauna. P. Certaco emanciguen entendimentua? R. Ezagutceco Jaungoicoa, eta artan pensaceco. P. Certaco emanciguen borondatea? R. Maitaceco Jaungoicoa gauza gueiac baño gueyago, eta gueren progimo laguna gueren buruac bezala Jauna.

Contiene las cuatro partes de la doctrina Christiana.

## Salve.

Salve Jangoicoac salbazaicela Erreina misericordia-
ren Ama vicice dulzure eta gure esperanza: Jangoicoac
salbazaicela zure gana deyez gaude Evaren hume des-
terratuac zure gana gaude suspiroz, sentimentuz, eta
negarrez, negarrezco valle ontan, Ea vada Señora gure
Abogada izulitezu gure gana zure begui misericordioso
oyec, eta desterru au pasatu ondoan eracusi diguzu
zure sabeleco fruitu bedicatue Jesus: ó Clementisima!
ó Piadosa! ó Dulce virgina Maria otoiz eguinzazu
gure gatic Jangoicoaren Ama Santa izangaitecen
digno erdeisteco Jesu cristoren prometimentu San-
tuec. Amen Jesus.

---

## Credoa

Credo nic sinestacen dut Jangoico Aita guzis podorosoa-
ren baitan, ~~lurraren~~ Ceruaren eta lurraren criazalea gure
Jaunaren baitan, cein concebitu baicen Ama virginaren
entrañetan Espiritu Santu jaunaren obraz, eta virtutez;
jayocen virgina Maria gandic, pasatuzuen pasio do-
lorezco poncio Pilato juezaren manuaren azpian,
gurucean crucificatuzuten, ilzuten orzizuten, je-
chicen limbora an ceuden animetaiteac atra-
cera eta libracera, eta andic ill, eta irugarren egu-
nean arresucitatucen illen artetic, igoncen Ceru-

tara, andagola jarriric Aita Eternoaren escuñeco aldean eta arren igualdadean, nondic etorrico baita azquen juicioco egunean onenetaa gaistoen juzgacera, nic ala sinestacendut Espiritu Santu Jaunaren baitan, Eliz ama Santa Catolicoan, Santuen Comunioa, Pecatuen barcacioa, araguien erresurreccioa vicitze seculecoa. Amen Jesus.